

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5931

*1436/2017 EBAZPENA, azaroaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea Bilbao-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostutik kentzeko dena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 454/2014 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 5eko EHAA, 82. zk.), Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea Bilbao-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, zuzendaritza nagusi honek hauxe

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea Bilbao-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2017ko abenduaren 1etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Bilbao-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.